



FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE VOLEIBOL
GIPUZKOAKO BOLEIBOL FEDERAKUNTZA

2020 URTERAKO

GIPUZKOAKO BOLEIBOL FEDERAZIOAREN

HAUTESKUNDE-ARAUDIA



FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE VOLEIBOL GIPUZKOAKO BOLEIBOL FEDERAKUNTZA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Araudi honek Batzar nagusiaren osaera-araubidea eta Gipuzkoako Boleibol Federazioaren lehendakariaren eta Zuzendaritza Batzordearen hautaketa arautzen ditu, 2012ko otsailaren 19ko Agindua beteaz.

Araubide horrek ezarri gabeko kasuetan, Euskadiko Kirol Legea, Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretua eta horren garapenean hauteskundeei buruz ezartzen diren xedapen publikoak eta Federazioaren Estatutuak beteko dira. Horrez gain, aplikaziozkoa izango da Administrazio Prozeduraren araubide orokorrean eta Euskadin indarrean dagoen hauteskunde-araubidearen arauketa berezian eta orokorrean jasotakoa.

2. artikulua. Lau urtetik behin egingo dira hauteskundeak, udako Joko Olimpikoekin bat etorriz.
Edonola ere, Herri Administrazio eskudunak zehaztuko du hauteskundeetarako garaia.

3. artikulua. Botoa askea, zuzenekoa, balio berekoa eta sekretua izango da.

4. artikulua. Hautesle-errolan nahiz hauteskunde-prozesu osoan jasotako datuen tratatu eta publikoki argitara daitezke, sufragio-eskubidea bermatzeko soilik, eta ezingo dira, hortaz, beste helburu baterako erabili edo laga.

Edonola ere, aplikaziozkoa izango da datu-babesari buruz indarrean dauden eskumeneko legeetan ezarritakoa.

Hauteskundeak deitzea

5. artikulua. Urte olimpikoa iristen denean Gipuzkoako Boleibol Federazioko Lehendakariak, Batzar Orokorra dei egingo du, hauteskunde prozedura abian jartzeko.

Deialdia adostu ondoren, jendaurrean jarriko da Gipuzkoako Boleibol Federazioaren lokaletan, eta federatuei jakinaraziko zaie orokorrean erabiltzen diren baliabideak erabiliz.

6. artikulua. Hilabeteko epean, Gipuzkoako Boleibol Federazioa jardunean den lehendakariak Hauteskunde-batzordea bilera batera deitu beharko du, hauteskunde-prozesuari hasiera emateko.

Epea hori igaro eta Hauteskunde-batzorde bilerara deitu ez badu, Federazioko Batzar Nagusiko edozein kidek bilera deitu dezake, Federazioko kide guztien % 5 alde badago betiere.

Batzarra eratzea

7. artikulua.- Hauteskunde-batzordeak estamentu bakoitzari ordezkari-kopuru zehatza esleitu dio Gipuzkoako Federazioaren Batzarrean, lurralde-estamentu bakoitzaren eta guztizko lizentzia-kopuruaren arabera. Lurralde-federazioetako batzar nagusietako pertsona fisikoek eta juridikoek osatzen dute Gipuzkoako Federazioaren errolda. Pertsona fisikoak izango dira batzarkide, eta ez haren ordezkari jarduten duen pertsona fisikoa.

Federazioko estamentuetako ordezkariak osatuko dute Gipuzkoako Boleibol Federazioaren Batzar Nagusia, eta gehienez 15 (hamabots) kide izango ditu. Hauteskunde-batzordeak zehaztuko du hori hauteskundera baino lehen, onartutako errolda kontuan izanik.

Batzarra honela osatuko da:

A) Kirol Klubak eta Elkarteen estamentuari % 70eko (% hirurogeita hamar) ordezkariak dagokio, batzarkide guztiekiko.

B) Kirolarien Estamentuari %15 batzarkide guztiekiko.

C) Teknikarien Estamentuari eta Arbitroen eta Epailen Estamentuari % 15 ordezkariak dagokio (Teknikari Estamentuari % 8 ordezkariak dagokio eta Arbitroen eta Epailen Estamentuari % 7 ordezkariak dagokio), batzarkide guztiekiko.

Hauteskunde-batzordeak kirol-klubei eta -taldeei esleitzen dizkion boto haztatuak hemen ezarritako ehunekoak errespetatuko ditu,

8. artikulua. Hauteskunde-batzordeak zehaztuko ditu Batzar Nagusiko postu hutsak betetzeko, ordezkari sistemari lehentasuna emanaz.

Postu hutsak betetzeko nahikoa ordezkari ez baleude, hauteskunde partzialak egingo dira. Hauteskunde partzial bakarrik egingo da agintaldiaren lau urteetan zehar, eta agintaldi hasi eta bi urtera ospatu daiteke soilik.

9. artikulua. Estamendu bakoitzari zenbat ordezkari esleitu zaizkion jakinaraziko diote, eta Gipuzkoako Federazioaren iragarki-oholetan jarriko da.

10. artikulua.- Gipuzkoako Federazio Batzarrak batzarkideak izendatzeko bozketak egingo ditu, eta kide horiek parte hartuko dute Boleibol Euskal Federakundeko Batzarrean, bertako Hauteskunde-batzordean erabakitakoari jarraiki.

11. artikulua. Boleibol Euskal Federakundeko Batzarrean parte hartuko duten lurralde-ordezkariak Gipuzkoako Boleibol Federazioko batzar kideak izan behar dira. Boleibol Euskal Federakundeak ez die lurralde-federazioetako kide izateko beharrezko den lizentzia-kopurua baino lizentzia gehiago eskatuko kirol-klubei eta -taldeei. Gainera, ez da beharrezkoa izango kirol-ekipamenduen titular izatea edo ekipamenduak eskura edukitzea Batzar Nagusiko kide izateko edo botoak haztatzeko.

12. artikulua. Gipuzkoako Boleibol Federazioak urriaren 31 baino lehenago adieraziko dio bere batzarrean onartutako kideak, Euskadiko Boleibol Federakuntzaren hauteskunde batzordeari, Euskadiko Boleibol Federakundearen batzarra osatu dezaten.

Hauteskunde-batzordea

13. artikulua. Gipuzkoako Boleibol Federazioaren Hauteskunde-batzordea kide anitzeko organoa da, eta hauteskunde-prozesua bultzatu eta zuzentasunez garatzen dela bermatu behar du.

14. artikulua. Hauteskunde-batzordeko kideak eta ordezkioak zozketa bidez hautatuko dira, Hauteskunde-erroldan sartutako pertsona fisiko guztien artetik.

Hauek dira Hauteskunde-batzordeko kideak: lehendakaria, idazkaria eta bokala. Horrez gain, batzordeak hiru ordezko izango ditu.

Hautatutako pertsona juridikoek izendatutako pertsona fisikoak Hauteskunde-batzordeko kide izan daitezke. Orokorrean, pertsona fisikoak ezingo dira agintaldi osoan pertsona juridikoekin ordeztu, kasu hauetan salbu: heriotza, dimititzea, gaitasungabetzea, gaixotasuna edo pertsona juridikoaren borondatez kanpoko beste edozein arrazoi bat.

Batzordekideek hautatuko dituzte lehendakaria eta idazkaria, eta inor ere ez izendatu edo hautatzen ez bada, lehendakaria kiderik zaharrena izango da, eta idazkaria, aldiz, gazteena.

Pertsona hautatuek kargua onartu beharko dute. Aitzitik, ez dute kargua hartu beharko eta ez dute inolako erantzukizunik izango, lanarekin, familiarekin, ikasketekin eta osasunarekin lotutako arrazoiengatik ezin badituzte funtzioak behar bezala bete.

Hauteskunde-batzordeko kideak lau urtez egongo dira karguan. Hala eta guztiz ere, Batzar Nagusiak edo Kirol-administrazioak kideak kargugabetu eta beste batzuk izenda ditzake, agintaldia amaitu baino lehen.

Hauteskunde-batzorde bat desegin edo kargutik kentzen denean, funtziotan jarraituko du batzorde berria izendatu arte.

15. artikulua. Hauteskunde-batzordeak funtzio hauek bete behar ditu:

- A) Hauteskunde-errola eta Hauteskunde-egutegia onartzea.
- B) Aurkeztutako hautagaiak onartzea, jakinaraztea eta argitaratzea.
- C) Hauteskunde-mahaia izendatzea.
- D) Aurkezten diren kontra-egiteen, erreklamazioen eta eskaeren gaineko erabakiak hartzea, eta Hauteskunde-mahaiko erabakien kontrako errekurtsoak ebaztea.
- E) Hauteskunde-aginduak interpretatzea eta egon litezkeen araudi-hutsuneak betetzea.

F) Botoa emateko txartelen, gutun-azalen, hautagai-inprimakien eta antzeko agiriaren modelo ofizialak onartzea.

G) Hauteskunde-ekitaldiak federazioaren egoitza sozialetik kanpo egiteko baimena ematea.

H) Egindako kontsultak ebaztea.

I) Dagokion diziplina-batzordeari Hauteskunde-prozesuarekin lortutako gertaeren berri ematea, diziplinazko arau-hausteak baldin badira.

J) Hautetsitako hautagaiak jakinaraztea.

k) Kirol-klub edo -talde bakoitzari dagokion boto haztatuta aplikatzea, estatutuetan boto horiek esleitzea aurreikusten denean.

L) Estamentu ezberdinei postuak berresleitzea, kirol-klubetako eta -taldeetako boto haztatuak estamentu bakoitzari dagozkion ehunekoak bete ditzan.

M) Hauteskundeei eta horien emaitzei zuzenean eragiten dien beste edozein kontu.

16. artikulua. Batzordea osatzeko, bilerara bi batzordekide bertaratzearekin nahikoa izango da.

Hauteskunde-batzordeko akordioak botoen gehiengoarekin hartuko dira. Berdinketarik balego, lehendakariak izango du kalitateko botoa, eta besteei gailenduko zaio.

Kideren batek gehiengoaren aurkako botoa ematen badu eta boto hori justifikatuta eta bilerako aktan jasota badago, botoa eman duenak erantzukizunetatik libre egongo da.

17. artikulua. Hauteskunde-batzordeko akordioen berri emango zaie interesdunei, eta Federazioko iragarki-oholean argitaratuko dira.

Hauteskunde-batzordeak hartutako akordioei errekurtsua jar dakieke. Horretarako, lehenenbizi Hauteskunde-batzordeari aurkeztu beharko zaizkio, 2 egun balioduneko epean. Era berean, errekurtsu horien gaineko ebazpenei errekurtsua jar dakieke Kirol Justiziako Euskal Batzordean, zazpi egun balioduneko epean.

Bilera bakoitzean akta idatziko da, eta Hauteskunde-batzordeko kide guztiek sinatu beharko dute.

Hauteskunde-mahaia

18. artikulua. Hauteskunde-batzordeak zozketa egingo du hautagai izango ez diren boto-emaleen artean —pertsona fisiko nahiz juridiko izan—, Hauteskunde-mahaia izendatzeko. Hiru kidek eta hiru ordezkok osatuko dute Mahaia, eta Hauteskunde-batzordeak lehendakaria eta idazkaria espresuki izendatuko ditu, edo, inor ere ez izendatzen ez bada, lehendakaria kiderik zaharrena izango da, eta idazkaria, aldiz, gazteena.



FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE VOLEIBOL GIPUZKOAKO BOLEIBOL FEDERAKUNTZA

Hautatua izan den pertsona juridikoek izendatutako pertsona fisikoak kide izan daitezke. Pertsona fisikoak ezingo dira agintaldi osoan pertsona juridikoekin ordeztu.

Hauteskunde-mahaia Gipuzkoako Boleibol Federakundearen helbidean izango du egoitza.

Hauteskunde-mahaia osatzeko, gutxienez bi mahaikide bertaratu behar dira.

Hauteskunde-mahaiko akordioak eta erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, eta berdinketarik balego, lehendakaria botoa gailenduko da. Kideren batek aurkako botoa ematen badu eta boto hori justifikatuta badago, botoa eman duenak erantzukizunetatik libre egongo da.

Hauteskunde-mahaiaren erabakien berri emango zaie interesdunei, eta Federazioaren iragarki-oholean jarriko dira.

Hauteskunde-mahaiaren erabakiei kontra egin nahi dienak Hauteskunde-batzordera jo behar du, bi egun balioduneko epean.

Hauteskunde-batzordeak Hauteskunde-mahaiaren akordioen errekurtsioak edo kontra-egiteak ebatziko ditu, eta ebazpen horiei ere errekurtsioa jar dakieke Kirol Justiziako Euskal Batzordean, 7 egun naturaleko epean.

19. artikulua. Hautagaiek kontu-hartzaileak izenda ditzakete edo Hauteskunde-mahaiaren kontu-hartzaile gisa aritu. Horien funtzio bakarra bozketara eta botoen kontaketa bertaratzea da, eta eskubidea dute hauteskundeen garapenari eta bozketari eta boto-kontaktari buruz egiten dituzten oharra eta erreklamazioak aktan jasotzeko.

20. artikulua. Hauteskunde-mahaiaren funtzioak:

- A) Bozketak behar bezala egiten direla bermatzea.
- B) Boto-emaileen nortasuna eta hautesle diren egiaztatzea.
- C) Botoak baliozkoak diren erabakitzea.
- D) Botoak zenbatzea, horiek emateko epea amaituta.
- E) Bozketari buruzko beste edozein gai ebaztea.

21. artikulua. Hauteskunde-mahaiaren idazkariak akta idatziko du, eta bertan jasota geratuko dira boto-emaileen zerrenda, bozketan izandako gertakariak, erreklamazioak eta emandako boto baliodunak, boto baliogabeak eta boto zuriak.

Lehendakariak, idazkariak eta bokalak akta sinatuko dute, eta Hauteskunde-batzordeari bidaliko zaio, boto baliogabeekin edo kontra-egindako botoekin batera.



FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE VOLEIBOL GIPUZKOAKO BOLEIBOL FEDERAKUNTZA

Hauteskunde-prozesuan hautagai direnek ezingo dute inolaz ere Hauteskunde-batzordean edo Hauteskunde-mahaian parte hartu. Bateriaezintasunik dagoen ezartzeko, kontuan hartuko da hautagai izateko borondatea zein egunetan adierazi den, hau da, hautagai izatea onartzen den eguna, izendapena itxaron behar izan gabe.

Zuzendaritza-batzarreko lehendakaria hautatzea

22. artikulua. Gipuzkoako Boleibol Federazioko lehendakariak Federazioko Batzarraren kide izan beharko du, edo bertako kide den pertsona juridikoa baten ordezkari izan beharko du. Pertsona juridikoen ordezkaria lehendakaria edo ordezkari dela modu sinesgarrian egiaztatzen duen pertsona bat izango da. Bigarren kasu horretan, ordezkariak Kirol-klubeko edo -elkarteko idazkariak igorritako ziurtagiria aurkeztuko du, eta lehendakariaren oniritzia izan beharko du.

Gipuzkoako Boleibol Federazioko lehendakaria ezin da aldi berean Kirol-klub edo -talde bateko lehendakari izan, eta ezta edozein beste pertsona juridiko ere, nahiz eta Federazio Batzarreko kide izan. Lehendakari hautatzekotan, bestelako karguak utzi beharko ditu, eta Federazioko lehendakari kargua bakarrik bete.

Horrez gain, Gipuzkoako Boleibol Federazioko lehendakaria ezin da aldi berean federazio-lizentzia duen klub, talde, erakunde edo pertsona fisiko bateko ordezkari izan. Pertsona juridiko baten ordezkaria lehendakari izendatuz gero, ordezkaritza horri uko egin beharko lioke.

23. artikulua.- Lehendakaritzarako eta Zuzendaritza Batzorderako hautagaitza idatziz aurkeztu beharko da beti, eta idatzian izen-abizenak, NAN zenbakia, eta kargua bete nahi duten pertsona guztien lizentziak jaso beharko dira. Horrez gain, hautagaitza bakoitza zein karguri dagokion adierazi beharko da, eta hori zehaztu ezean, lehendakaritzarako hautagaia zerrendaburua dela iritziko zaio. Hala badagokio, Batzarrean pertsona juridiko baten ordezkaritza betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko da.

24. artikulua. Hautagaiak aurkeztu ondoren, Hauteskunde-batzordeak zazpi eguneko epean onargarriak diren ala ez erabakiko du.

Bileraren garapena

25. artikulua. Hauteskunde-batzordeak bilera deituko du, Hauteskunde-egutegian zehaztutako datan, eta hau izango da gai-zerrenda:

1. Batzarra osatzea.
2. Hauteskunde-mahaiaren osatzea.
3. Lehendakaria eta Zuzendaritza-batzarra hautatzea.

Kideen gehiengoa bertaratzen bada, Batzarra lehenengo deialdian osatuta egongo da, eta bigarren deialdi bat egin behar bada, nahikoa izango da kideen herena bertaratzea.



FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE VOLEIBOL GIPUZKOAKO BOLEIBOL FEDERAKUNTZA

26. artikulua. Batzarra bildu bezain laster, Hauteskunde-mahaia eratuko da.

27. artikulua. Ez da onartuko botoa ordezkari baten bidez ematea, ezta postaz bidaltzea ere. Era berean, pertsona fisikoek ezingo dute kirol-klub edo -talde bat baino gehiagoren ordezkari izan.

28. artikulua. Hautagai-zerrenda bakarra badago, lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordera izendatuko dira, bozketarik egin gabe.

Zerrendarik ez badago, Hauteskunde-batzordeak epe berria jarriko du hautagaitzak aurkezteko. Bigarren epe horretan hautagairik aurkezten ez bada, Hauteskunde-batzordeak egoeraren berri emango dio funtziotako lehendakariari, eta har Batzar Nagusiaren ezohiko bilera deituko du, hautagaitza-ezaren ondorioz Federazioa desegin behar den eztabaidatzeko.

29. artikulua. Batzarreko bilera hasi ostean, lehendakariako eta Zuzendaritza Batzorderako hautagaiak aurkeztu eta hautatuko dira.

Hautagaia botoen gehiengo soilez hautatuko da, lortutako ehunekoen arabera.

Txartel bakoitzean, zerrenda bateko hautagaiak bozka daitezke soilik. Mahaiak botoak zenbatuko ditu, eta gehiengoa lortu duten zerrenda-kideak Gipuzkoako Boleibol Federazioko lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea izendatuko dira.

Berdinketarik balego, bozketa berria egingo da. Berdinketarekin jarraitzen bada, emakume bat buru duten zerrendak hautatuko dira. Oraindik ere berdinketa mantenduz gero, Hauteskunde-batzordeak zozketa egingo du berdinketa lortu duten hautagaitzen artean, zazpi eguneko epean gehienez ere.

30. artikulua. Lehendakari berria eta Zuzendaritza Batzordea izendatu ostean, horiek ebatziko dituzte eztabaida guztiak, Hauteskunde-batzordean hauteskundeei dagokienez egon daitezkeen erreklamazioak alde batera utzita. Behin betiko izendapenak ezarri ondoren, hautatuko pertsonak beren funtzioak bete ditzakete kargua hartzeko ekitaldi formalik egin behar gabe.

31. artikulua. Hogeita lau orduko epean, Hauteskunde-mahaiak akta bidaliko dio Hauteskunde-batzordeari, eta hark emaitzak argitaratuko ditu, hiru eguneko epean.

Emaitzei Kirol Justiziako Euskal Batzordean errekurtsioa jarri edo kontra egin dakieke, zazpi egun naturaleko epean, eta baita Hauteskunde-batzordean ere, 2 egun balioduneko epean.

Xedapen osagarriak

Bakarra. Agintaldian bazarik balego, Lurralde Batzarrean horien ordezkodirenek beteko dituzte postu hutsak.

Donostia, 2020ko ekainaren 2an